

GIL 69 Delika arroilako Nerbioi ibaiaren ur-jauzia



Subillako kareharrizko paret handien ikuspegia, arroilaren hondotik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 56' 21" N
Long.: 2° 58' 53" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 501.523,87 m
Y: 4.754.041,11 m



Nola iritsi

Bide bat baino gehiago dago. Hau da biderik errazena: Burgosko Berberana herritik Urduñako portura doan bidea hartuta, Nerbioiren jauziaren begiratokira doan mendi-bideari jarraitzea eta autoa Santiago iturburuko aparkalekuan uztea; begiratokira doan mendi-bidean dago, aipatutako errepidetik 3,2 km-ra. Handik, oinez jarrai daiteke mendi-bidean aurrera, jauziaren begiratokiraino. Delikatik hormaraino joatea da beste aukera, baina bide hori zailagoa da.



Nerbioi ibaiaren jauzia urtzaldian.

GILaren deskribapen laburra

Nerbioiren jauzia 220 m inguruko ur-jauzi bertikal bat da, Nerbioi ibaiak Gillarte eta Gibijo mendilerroen artean jaio eta gero egiten duena. Ibaia Urieta leizean sortzen da, 900 m inguruko garaieran, Arantxaga menditik hurbil. Iturrigutxi, Ajiturri eta Urita erreken urak jaso eta gero, kilometro batzuk egiten ditu Europako ur-jauzirik handienetako batean behera egin aurretik.

Ur-jauzia Araban dago, Amurrio udalerriko Delika herrian zehazki, Burgosko mugatik oso gertu, Urduñako portuaren ondoan. Zehatzago esateko, Burgosko Santiago Mendiko Monumentu Naturalaren eta Gillarte mendilerroaren artean dago, eta isurialde kantauriarraren eta mediterraneoaren banalerroaren parte da.

Maiz egoten da lehor jauzia, eta, urte askotan, urtzaldian edo euri-jasa handien ondoren baino ez du izaten urik; urtsua denean du baliorik handiena paisaiaren ikuspegitik.

Geomorfologikoki, erliebe monoklinal maldatsu bat da, E-W norabidekoa, eta hegoalde-
ra okertua dago pixka bat Urduñako diapiro hurbilaren eraginez. Subillako kareharrizko
banku handien gainean eratua dago. Banku horien morfologia nabarmena da paisaian,
eta hantxe sortua da Nerbioi ibaiak Delikarantz jauzi egin aurretik igarotzen duen arroi-
la. Kretazeoko kareharrien azpian, Turoniarreko kareharri buztintsu eta tuparriak dau-
de, txandaka; haiek osatzen dute eboluzio karstikoa sakonean mugatzen duen geruza
iragazgaitza. Jauziaren azpian, labarraren atzerapena dela-eta eroritako bloke handiak
ikusten dira.

Behatzeko punturik onena

Nerbio ibaiaren jauziaren begiratokia (Burgos) eta Delika arroiaren oina (gaur egun, iris-
ten zaila).

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 57, GIL 79, GIL 109, GIL 114.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 70.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa		●		
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Europako ur-jauzirik handienetako bat da. Interes geomorfologikoaz gain, nabarmen- tzekoa da Subillako kareharriak oso ondo ikusten direla arroiaren paretetan.				